

BERMEO. Zaztarrak gaika batzeari ekingo deusie ingurumena hobeto zaintzearren

Birziklatzea da helburua

Aurrerantzean Rezikletak hartuko dau uri hondakinak batzeko eta birziklatzeko ardura

Onintza Enbeita

Bermeoko Udalak lehiaketa publikora atera eban zaztar batzea eta Rezikleta S. Coop. izan zan zerbitzua eskuratu ebana. Rezikletak, hamar urte daroaz behar horretan.

Zezeilaren 9an, sinatu eben Rezikletak eta Bermeoko Udalak, zaborrak batzerako akordioa. Rezikletaren zerbitzua martxan dago, beraz, Bermeon, joan zan zezeilaren 13tik hona.

Birziklagarriak diran zaztarrak batu orduko, Rezikletara deitu beharko dabe bermeotarrak. Goizeko 8:00etatik 14:00etara, eta arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara, beti izango dabaten bat 94 457 14 47 telefonoan. Ordutegitik kanpora, erantzungailu automatikoan itxi beharko dabez euren mezuak herritarrek.

Hartzen diran deiak entzun eta gero, aitatutako zaborretatik birziklagarriak zeintzuk diran aztertuko dau Rezikletak. Horren arabera, etxean edo kalean batuko dira jenteak botateko daukazan tresnak.

Elektratresnak, altzariak, liburuak, arropak... dagozan etxeetan, kalean baino egun bat arinago egingo dau batzea Rezikletak. Gero, Basaurin, Bilbon eta Galdakaon daukazan lokalari batera eroango dabez, eta han, garbitu, konpondu eta saldu egingo dira.

Osterantzeko gauzak, kalean batuko dira. Herritarrek martitzen gaueko 22:00etatik aurrera itxi beharko dabez trasteok kalean, eta eguaztenentan pasatuko da Rezikletaren kamioia.



ONINTZA ENBEITA

Gaika batzea eta birziklatzea indartuko dau Rezikleta taldeak.

Kalean batzen diranak, Rezikletak, Erletxetan daukan biltegiara eroango daz. Bertan, erabilgarriak diranak eta ez diranak zeintzuk diran gaika sailkatuko dabez. Rezikletak jakitera emon dauanez, «ez da erreko ezer, aurretik atalkatze prozesu batetik pasatu ez bada». Erabilgarriak ez diran gauzak, errauzte plantara eroango dabezala esan dau Rezikletak. Material hori bertan erreko dabe.

Arropak eta ohialak

Ohial bilketa, Rezikletak proposatu eban lehiaketa publikoan eta Bermeoko Udalak onartu egin eban. Urtean bilketa bi egingo dira: bata udabarrarian eta bestea udagoiengan.

Bilketaren aurretik, kartelak jarriko dira herriko kolarretan, eleizaren lokaletara arropak eroan dagiezan eskatzen. Han, Caritasek itxarongo deutse herritarrei.

Astelehena, martitzena eta eguaztenean egongo dira Caritasekoak arropa jasoten. Gero, Rezikletako kamioia pasatuko da lokaletik, eta Berohi S. Coop.-era eroango dabez arropak. Enpresa horrek Rezikletagaz batera behar egingen dau.

Enpresa horren Zamudioko lokaletan atalka banatu, garbitu eta behar dan moduan jarriko dira arropa guztiak. Batzuk, barriri salduko dira bigarren eskuko arropa moduan.

INAUTERIAK. Tostada txapelketa eta Lapurdiko Inauteriak ikuskizuna izango dira domekan

O.E. |

Domeka goizeko 11:00etan hasiko jakez bermeotarrei aurtongo inauteriak. Ordu horretan, hasi eta eguerdira arte musika egongo da Lameran herritar guztientzako.

Behin 12:00 ezker, tostada txapelketan parte hartu behar dabene, zaharren egoitzara joan beharko dabe euren tostadak eroatera. Ganera, ordu horretan hasiko dira Iturengo Zantantzarrak Bermeoko kaleak astintzen. Eurakaz batera, Alkartasuna dantza taldekoek, Lapurdiko Inauterietako dantzak egingo dabez kalerik kale.

Domekan eta martitzenean jai izango dabe bermeotarrek ihatueriak diralako

Dantza eta zantantzarren erritmora hasiko da tostaden sari banaketa 13:30ean Lamerako kioskoan. Ogizko tostadak ondoen egin dauzanari 10.000 pezeta eta oroigarria emongo jakoz. Bigarren egiten dauzanari, oster, 5.000 pezeta eta Bermeoren ganeko liburuak egokituko jakoz. Hirugarren tostadarik onenak egingen dauzanak, 2.500 pezeta eta Bermeoren ganeko liburuak eroango daz. Ahiezko

tostadetan be, bardinak izango dira sariak.

Iluntzeko 19:00etan hasita, hirugarren adinekoentzako dantzaldia izango da Kasinoan. Derrigorra izango da moztortuta joatea eta sariak be egongo dira.

Astelehen arratsaldeko 18:00etan, musika eskolakoentzako kontzertua izango da Kasinoan. Euskal Dantzak joko dabez batez be astelehenean.

Martitzen goizeko 10:30ean kalejira batek urtengo dau Karmeldarren ikastetxetik, eta beste batek 11:30ean Frantzisko deuna herri ikastetxetik.

Eguerdiko 14:00etatik aurrera, barriz, jaialdia izango da Eleizalde ikastolako jolastokian, eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara, F.M. diskoteka izango da Lameran.

19:30ak inguruan, Bermeotarrak fanfarrea hasiko da kaleak alaitzen. Ostean, Ega orkestragaz dantzaldia izango da Lameran. Martiaren lauan, umeentzako jaialdia eta txokolatada izango dira 13:00etan Lameran.

ELANTXOBE

84 milioi pezeta gastatuko daz Foru Aldundiak bidea atontzen

O.E. |

Ibarrangelutik Elantxobeko bidean, badago jausi egingen dan bide zati bat. Amildegia dauka ondoan bideak, eta, antza danez, amildegiko lurrek bideari beherantz sakatzen deusie. Halandaze, amildegia jausten dan neurrian, bideak be beherantz egingen dau.

Arazo horri konponbidea emeteko 84 milioi pezeta inbertituko daz Foru Aldundiko Herrilan Sailak Elantxoberako bidean. Amildegian barruko lurretan dago arazoa, eta horixe da konponduko dabena. Azken baten, amildegia atonduko dabe lehenengo lurrek beherantz egin ez daie. Ostean, bidea atonduko dabe, jausteei behin betiko konponbidea emonaz.

Portuko obren bigarren zatia martxan dago

Ez da denpora asko Elantxobeko portuko obren lehenengo atala konpondu zala. Orain, bigarren atalari ekin deusie. Gitxi gora behera, 300 milioi pezeta inguruko aurrekontua kalkulaten da portuko obretarako.

Elantxobeko portuko moila zabaldu egingo dabe eta dikea egingo deutse portuari. Orain, portuan dagoan ranpatxoak kendu eta bidea zabalduko dabe, ganera. Holan, posible izango da kotxe bi batera pasatzea. Obrak, garagarriararen 22rako, Madalena egunerako, amaitzekotan dira, baina ez dago hain argi.

AGENDA

GERNIKA-LUMO

Ganbera orkestra: gaur arratsaldeko 17:30ean, Andra Mariaren parrokan Haroko kontserbatorioko Ganbera orkestraren kontzertua izango da. Ekitaldi hori Segundo Olaeta musika eskolaren X. urteurrenko ospakizunen barrua dago. Danetara, 40 ikasle osoz osotutakoa da Haroko Ganbera orkestra.

Berbaldia: Gernika-Lumoko PAT-COPEk antolatuta, Axisko Urmeneta izango da gaur goizeko 11:00etan Kultur Etxean. Bihar arratsaldeko 15:00etan programa beraren barruan, Irakurketa eta Idazketaren ganeko berbaldia izango da Kultur Etxean.